

# Israel Fernandez, Manuela Carrasco eta Raimundo Amador ariko dira Flamenco on Fire-n



**DANTZA.** Manuela Carrasco dantzaria. RAUL CARO / EFE

- Jaialdia abuztuaren 23tik irailaren 1era arte egingo dute, Vianan, Tuteran eta Iruñean.
- Duguna dantzari taldea omenduko dute.

**Mikel Lizarralde**

Aurten ere, abuztuko azken egunetan flamenko doinuz eta erritmoz beteko dira Viana,

Tutera (Nafarroa) eta Iruñeko bazter ugari. Azken urteetan bezala, hainbat ziklok osatuko dute festibala, eta horietako nagusia, Kontzertu Handiak izenekoak, abuztuaren 23an hasiko da, Vianan, Jesus Mendez kantariak, Antonio Molina *El Choro* dantzariak lagunduta emango duen kontzertuarekin. Hurrengo egunean, Jose Maya dantzaria Tuterako Gaztanbide antzokian ariko da.

Zikloak Iruñean segituko du, beste lau emanaldirekin. Andaluziako Flamenko Balletaren saioa izango da Baluartan 29an, eta Israel Fernandez kantaria ariko da

30ean. Josemi Carmona, Diego del Morao, Ricardo Moreno eta Dani de Moron gitarristek 31n joko dute Baluartan, eta saioan hainbat gonbidatu izango dituzte: Farruquito (dantza) eta Lela Soto nahiz Delis Membrive (kantua). Azkenik, irailaren 1ean Manuela Carrascoren emanaldia izango da Iruñean, eta hark ere hainbat gonbidatu izango ditu: Manuela

Carrasco alaba, Remedios Amaya eta Anabel Valencia.

Flamenco on Fire jaialdiak tradizioari begiratzeko dio, baina baita joera garaikideei ere, eta, hain zuzen ere, Iruñeko Zentral aretoa azken horien erakusleho izango da. Abuztuaren 28an, Derby Motoreta's Burrito Kachimba taldeak bere azken diskoa aurkeztuko du (*Bolsa amarilla y piedra potente*),

eta, 30ean, berriz, Raimundo Amador eta Emilio Caracafe gitarristak La Kaita kantariarekin batera ariko dira gune berean. Irailaren 1ean, Califato 3/4 taldeak itxiko du zikloa.

## Omenaldia Dugunari

Beste hainbat ziklo ere izango ditu musika jaialdiak. Adibidez, Iruñeko Tres Reyes hotelean urtero *tabla* bat ezartzen dute, eta aurten honako hauek igaroko dira bertatik: El Capullo de Jerez (abuztuaren 28an), Alba Heredia (29an), Aurora Vargas (30ean), Gema Moneo (31n) eta Remache, Paqui Rios, Delia Menbrive eta Ruben Lara (irailaren 1ean).

Abuztuaren 28an Duguna dantza taldeari omenaldia egingo diote Iruñeko Udaletxe plazan. Aurten 75 urte bete ditu taldeak, eta, urteurrena baliatuta, Josemi Carmonak musika jarriko du egun horretan, eta Iruñeko taldeko kideak haren bueltan dantzatuko dira. Iruñeko udaletxeko balkoian ere izango dira emanaldiak, abuztuaren 29tik irailaren 1era bitartean.

Bestelako ekitaldiak ere antolatuko dituzte; esaterako, Sabicas gitarrista iruindarraren inguruko topaketak egingo dituzte. ●